

N9 F6 #NI 9 B' ? 5 F H5
CbUf dYb'cZñ]UfYb`XUH&\$%#%&-



Sarrera

Zerbitzuen Karta honetan, Prebentzio Zerbitzuak adierazi nahi du arrisku prebentzioaren kultura ezartzeko hartu duen konpromisoa Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko lan esparruan segurtasuna bermatzeko eta osasuna babestearren.

Dokumentu honen bidez erabiltzaileei honen berri ematen zaie: eskaintzen diren zerbitzuak, erabiltzaileen eskubideak eta gure kalitatearekiko konpromisoak.

Zerbitzuen Karta honek informazioa helarazteko eta konpromisoa hartzeko tresna izango delakoan gaude, gure lana eraginkor, profesional eta erabiltzaileei bideraturikoa izan dadin.

Helburua

UPV/EHUko Prebentzio Zerbitzua prebentzioaren arloko zeregina betetzeko beharrezko diren giza baliabide eta baliabide materialez osatua dago, horien bidez unibertsitateko kideei babesa emateko segurtasun eta osasunaren arloan. Zeregin horiei jarraituz, aholku eta laguntza emango diete administrazioari, langileei, horien ordezkarietara eta campusetako eta campus arteko laneko segurtasun eta osasun batzordeei.

Jarduerak eta Hartzaileak

Pertsonaleko Gerenteordetzak eskatutako Osasun Arloko txostenak bidaltzea	
Pertsonaleko Gerenteordetzak eskatzen dituen Osasun Arloko txostenak idaztea eta helaraztea	IIP AZP Pertsonaleko Gerenteordetza
Prebentzio arloan AZPk eta IIPk jasotako prestakuntza	
Prebentzio arloan, AZP eta IIPk urtero jasotzen dituzten prestakuntza ikastaroak	IIP AZP
Autobabeserako planak kudeatzea	
Autobabeserako planak kudeatzea eta simulazioak bultzatzea	IIP AZP
IIP eta PASi ohiko azterketa medikoak egitea	
Unibertsitateko IIP eta PASi ohiko azterketa medikoak egitea	IIP AZP
Lanean hasteko azterketa medikoak egitea	
AZP eta IIP berriari azterketa medikoa egitea	IIP AZP
Mantalak mantentzea, garbitzea eta kutsadura kentzea	
Laneko arropa (mantalak) mantentzea, garbitzea eta kutsadura kentzea	IIP AZP
Lan-arrisku prebentziorako goi mailako teknikariak higiene-kontrola egitea	
Lan-arrisku prebentziorako goi mailako teknikariak higiene-kontrola egitea (ingurumen neurketak)	IIP AZP
Haurdun edo bularra ematen ari diren langileen zein bereziki sentikorrek diren arriskua ebaluatzea	
Haurdun edo bularra ematen ari diren langileen zein bereziki sentikorrek diren arriskua ebaluatzea	IIP AZP
Kontrol-ergonomikoen arriskuak kontrolatzea	
Kontrol-ergonomikoen arriskuak kontrolatzea	IIP AZP
Prebentzioaren arloko eskaerak eta iradokizunak bideratzea	
Prebentzioaren arloko eskaerak eta iradokizunak bideratzea	IIP AZP



Eskubideak

Araudiak dioen arabera, datu pertsonalak babestuta izateko eskubidea dute erabiltzaileek.

Erabiltzaile bakoitzak aukeratutako hizkuntza ofizialean (euskaraz ala gazteleraz) izango da Prebentzio Zerbitzuko langileen arreta.

Erabiltzaileek Zerbitzuaren erantzuna jasotzeko eskubidea dute finkaturiko kanalen bidez aurkeztutako eskariekiko.

Erabiltzaileek banakako arreta jasotzeko eskubidea dute hala informazioa eskatzean nola kexa edo iradokizunik aurkeztean.

Erabiltzaileek eskubidea dute eskaintzen diren zerbitzuaz eta dagokion arautegiaz informazioa jasotzeko, besteak beste, web orrialdearen bitartez.

Betebeharrak

Arrisku ebaluazioak eta simulazioak egiteko beharrezkoa den informazioa eskaintzen aktiboki kolaboratuko dute erabiltzaileek.

Erabiltzaileek Zerbitzuak ezarritako bide ofizialak erabiliko dituzte kexak nahiz iradokizunak aurkezteko orduan.

Prebentzio Zerbitzuak ezarritako arreta-ordutegiak errespetatu beharko dituzte erabiltzaileek.

UPV/EHUko arautegiak

15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoa.

17/2011 Eusko Jaurlaritzako Dekretua, otsailaren 15ekoa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearen Estatutuak onartzen dituena.

2/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoa.

3/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Euskal Unibertsitate Sistemarena.

30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena.

31/1995 Legea, Lan-arriskuen Prebentzioari buruzkoa (2006ko abenduaren 31n eguneratua).

4/2007 Lege Organikoa, apirilaren 12koa, Unibertsitateko 6/2001 Lege Organikoa aldatzekoa.

6/2001 Lege Organikoa, abenduaren 21ekoa, Unibertsitatekoa.

Ebazpena, 2008ko irailaren 4koa, Euskal Herriko Unibertsitateko idazkari nagusiarena, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko UPV/EHUren Arautegia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agindua emateko dena.

Erabakia, 2009ko urriaren 28koa, UPV/EHUko Gobernu Kontseiluarena, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Laneko Arriskuen Prebentziorako Plana onartzeko dena.

Arautegi espezifikoak

306/1999 Dekretua, uztailaren 27koa, aurrezaintzako zerbitzuek Euskal Autonomia Erkidegoan burutzen dituzten jarduera sanitarioak arautzen dituena.

39/1997 Errege Dekretua, urtarrilaren 17koa, Prebentzio Zerbitzuen Araudia onartzen duena.

Ebazpena, 2003ko apirilaren 7koa, EHUko errektorearena, EHUren beraren prebentzio zerbitzua eratu, antolatu eta zerbitzuaren funtzionamendua zehazteko dena.

Konpromisoa

Jarduera	Konpromisoa	Adierazlea
Pertsonaleko Gerenteordetzak eskatutako Osasun Arloko txostenak bidaltzea	Pertsonaleko Gerenteordetzak idatziz eskatutako Osasun Arloko txostenak Prebentzio Zerbitzuak 9 egun baliodunen epean helaraziko dizkio	Pertsonaleko Gerenteordetzak Osasun Arloko txostenak eskatu eta Prebentzio Zerbitzuak helarazi bitartean pasatzen den egun baliodunen kopurua
Prebentzio arloan AZPk eta IIPk jasotako prestakuntza	Prebentziorekin erlazionaturiko ikastaroetan parte hartzen duten pertsonen gogobetetze maila 7 baino gehiagokoa izatea 10 gehienekoa izanik	Prebentziorekin erlazionaturiko ikastaroetan parte hartzen duten pertsonen gogobetetze maila (0 eta 10 bitartean)
Autobabeserako planak kudeatzea	Autobabeserako Batzordeen %100 jasoko dute Prebentzio Zerbitzuko aholkularitza autobabeserako plana azaltzeko eta kudeatzeko	% Autobabeserako Batzordeei eskainitako aholkularitza
IIP eta PASi ohiko azterketa medikoak egitea	Ohiko azterketa medikoak egiten dituzten langileek 10 egun baliodunen epean jasoko dituzte beren emaitzak	Ohiko azterketa medikoak egiten dituzten langileek beren emaitzak jaso arte pasatzen den egun baliodunen kopurua
Lanean hasteko atzerketa medikoak egitea	Gutxienez 2 hilabeteko kontratua duen IIP eta AZP berriari lanean hasteko atzerketa egitea 16 egun baliodunen epean	Gutxienez 2 hilabeteko kontratua duten IIP eta AZP berria lanean hasten denetik sartzeko atzerketa medikoa egin arteko egun baliodunen kopurua
Mantalak mantentzea, garbitzea eta kutsadura kentzea	Mantalak derrigorrez erabili behar duen pertsonalak lan-arropa hori prozeduraren arabera eskatzen duenetik 15 egun baliodunen epean jasoko du	Mantalak derrigorrez erabili behar duen pertsonalak lan-arropa hori prozeduraren arabera eskatzen duenetik jasotzen duen arteko egun baliodunen kopurua
	Pertsonalak mantala garbia eta kutsadurarik gabe jasoko du 15 egun baliodunen epean zehaztutako tokian uzten duenetik	Pertsonalak zehaztutako tokian mantala garbitzeko eta kutsadura kentzeko uzten duenetik mantala garbia jaso arte pasatzen den egun baliodunen kopurua
Lan-arrisku prebentziorako goi mailako teknikariak higie-ne-kontrola egitea	Idatzizko jakinarazpena jasotzen denetik 40 egun baliodunen epean Lan Arriskutako Goi Mailako Prebentzio Teknikariak higie-ne-azterketak egingo ditu	Idatzizko jakinarazpena jasotzen denetik Lan Arrisku Goi Mailako Teknikariak higie-ne-azterketak egiten duen arteko egun baliodunen kopurua
Haurdun edo bularra ematen ari diren langileen zein bereziki sentikorrek direnen arriskua ebaluatzea	Idatzizko jakinarazpena jasotzen denetik bisita tekniko eta txostena egiten diren arteko 10 egun baliodunen epean	Idatzizko jakinarazpena jasotzen denetik bisita tekniko eta txostena egiten diren arteko egun baliodunen kopurua
Kontrol-ergonomikoen arriskuak kontrolatzea	Idatzizko eskaera jasotzen denetik arrisku ergonomikoaren ebaluazioa 30 egun baliodunen epean egingo da	Idatzizko eskaera jasotzen denetik arrisku ergonomikoaren ebaluazioa egiten den arteko egun baliodunen epea
Prebentzioaren arloko eskaerak eta iradokizunak bideratzea	Idatzizko eskaera edo iradokizuna jasotzen denetik Prebentzio Zerbitzuak bideratzen hasiko da 15 egun baliodunen epean.	Idatzizko eskaera edo iradokizuna jasotzen denetik Prebentzio Zerbitzuak bideratzen hasten duen arteko egun baliodunen kopurua

Parte hartzeko erak

Erabiltzaileek gure zerbitzua hobetzeko aukera dute iradokizunak eta eskaerak helarazten, ahozko eta bereziki idatzizko zenbait partaidetza-tresnen bidez.

Prebentzio Zerbitzuaren Iradokizun Postontzia: <http://www.zerbitzu-orokorrak.ehu.es/p258-shprevct/eu/o53CiudadanoWar/ciudadano/o53nuevaConsulta.do?accion=inicio&codigoBuzon=BUZ211&idioma=eu>
fax: 946013185

e-mail: ane.uriarte@ehu.es (idazkaria) / i.apellaniz@ehu.es (zerbitziburua)

Parte hartzeko beste modu batzuk:

Segurtasun eta osasun batzordeak: http://www.zerbitzu-orokorrak.ehu.es/p258-shprevct/eu/contenidos/informacion/indice_comites_seguridad/eu_indice/indice.html

Osasun-hitzordua eskatzeko: http://www.zerbitzu-orokorrak.ehu.es/p258-shprevct/eu/contenidos/informacion/indice_vigilancia/eu_indice/osasun_arloa_hitzordua.html

Hondakinen kudeaketa: http://www.zerbitzu-orokorrak.ehu.es/p258-shprevct/eu/contenidos/informacion/indice_residuos/eu_indice/formularios_recogida_residuos.html

Istripuak jakinarazteko: istripuak@ehu.es

Amatasuna babesteko: amatasuna@ehu.es

Laneko arropa: mantalak@ehu.es



Iradokizunak egiteko erak

Erabiltzaileek, gure zerbitzuak hobetzeko asmoz, iradokizunak bidali ditzakete Prebentzio Zerbitzuaren Iradokizun Postontzira: <http://www.zerbitzu-orokorrak.ehu.es/p258-shprevct/eu/o53CiudadanoWar/ciudadano/o53nuevaConsulta.do?accion=inicio&codigoBuzon=BUZ211&idioma=eu>

Kexak eta erreklamazioak aurkezteko erak

Erabiltzaileek kexak eta erreklamazioak idatziz aurkeztu ditzakete Prebentzio Zerbitzuaren Iradokizun Postontzian: <http://www.zerbitzu-orokorrak.ehu.es/p258-shprevct/eu/o53CiudadanoWar/ciudadano/o53nuevaConsulta.do?accion=inicio&codigoBuzon=BUZ211&idioma=eu>

Gizarte konpromisoa

Prebentzio Zerbitzuko langileok, gainera, gure egiten dugu -gure zerbizuekin zuzeneko lotura ez badute ere- gizarte konpromisoarekin erlazionaturiko beste zenbait konpromiso.

Karta honen bidez, geure konpromisoa eta erantzukizuna plazaratu nahi ditugu administrazio publikoen ikur izan behar diren arloekin. Horregatik, lanean dihardugu, besteak beste, genero-berdintasuna eta beharizan berezidak dituzten kolektiboen irigarritasuna bermatzeko. Era berean, ingurumenarekiko eta lan-arriskuen prebentziorako neurriak hartu ere hartzen ditugu, zerbitzu iraunkor, osasunezko eta segurua eskaini ahal izateko.

Beste alde batetik, UPV/EHUK, arauen betepenetik haratago, bere estatutuetan aitortzen du euskara eta gaztelania UPV/EHUren hizkuntza ofizialak direla. Kalitateko zerbitzu bat eskaintzeko konpromisoari dagokionez, bi hizkuntzen erabilera orekatua bermatzeko hainbat mekanismo ezarri ditu UPV/EHUK.

Zuzentze neurriak

Onartutako konpromisoren bat bete ezean, erabiltzaileak erreklamazioa aurkeztu ahal izango dio Prebentzio Zerbitzuko arduradunari.

Prebentzio Zerbitzuko arduradunak erantzungo dio erabiltzaileari erreklamazioa egiteko baliatu den hizkuntza berean eta bide beretik. Konpromisoetako bat bete ez dela baleritzo, 15 egun baliadunen epean barkatzeko eskatuko zaio eta egindako akatsa zuzentzeko hartu diren neurrien berri emango.

Konpromisoren bat modu orokorrean betetzen ez bada, barkamena eskatzeko gutuna argitaratuko da honako web orri honetan: <http://www.zerbitzu-orokorrak.ehu.es/p258-shprevhm/eu/>

Emaitzen argitalpena

Zerbitzuen Kartak etengabe berraztertu beharko dira, baldin eta aitortutako konpromisoekiko desbideratzeak zuzenduko badira.

Horregatik, hain zuzen, konpromisoa hartzen dugu konpromisoen betetze-maila etengabe kontrolatzeko, xede horrekin ezarritako adierazleen bidez; halaber, konpromisoak ez betetzeagatik jasotako kexak aztertuko ditugu eta erabiltzaileen gogobetetzea balioetsiko dugu.

Jasotako datuak aztertuta, urteko jarraipen-txostena egingo dugu, konpromisoen betetze-mailaren, zerbitzu hobe eskaintzeko abian jarri diren neurrien eta, beharrezkoa izan bada, akatsak zuzentzeko hartu diren neurrien berri emanik.

Zerbitzuen Karta hau UPV/EHUko web gunearen bidez zabalduko da. Era berean, urtero argitaratuko dugu bertan xedaturiko konpromisoekiko betetze-maila web gune beraren honako esteka honetan: <http://www.zerbitzu-orokorrak.ehu.es/p258-shprevhm/eu/>



Helbidea, iristeko erak eta ordutegiak

Helbidea

BIZKAIKO CAMPUSA

Prebentzio Zerbitzuko burua: Biblioteka Eraikinaren Beheko Solairua. Sarriena auzoa z/g 48940-LEIOA

Osasun Arloa: Biblioteka Eraikinaren Beheko Solairua. Sarriena auzoa z/g 48940-LEIOA

Arlo Teknikoa:

I. Ikasgelategia 3. solairua. Sarriena auzoa z/g 48940-LEIOA

Ingeniaritza GET.B Eraikina. Urkixo Zumarkalea z/g 48013-BILBAO

ARABAKO CAMPUSA

Errektoreordetza. 2. Solairua. Komandante Izarduy, 2. 01006-VITORIA-GASTEIZ

GIPUZKOAKO CAMPUSA

Ignacio Maria Barriola Zentroa. Elhuyar Plaza, 1. 20018-DONOSTIA

Ordutegiak

08:00-17:00

Telefonoa

946013186 Administrativa

946013187 Jefe de Servicio

Fax 946013185

Posta elektronikoa i.apellaniz@ehu.es

Web <http://www.zerbitzu-orokorrak.ehu.es/p25>

Kokagunea eta Sarbideak

CAMPUS BIZKAIA

Leioa-Erandio

Área sanitaria:
Edificio Biblioteca
Planta Baja

Área técnica:
Aulario I
3º piso



Bilbao
ETS Ingeniería
Edificio B



CAMPUS ÁLAVA

Vitoria-Gasteiz
Vicerrectorado
2º piso



CAMPUS GIPUZKOA

Donostia-San Sebastián
Centro Ignacio M^a Barriola
1º piso



BIZKAIKO CAMPUSA

Prebentzio Zerbitzuko burua: Biblioteka Eraikinaren Beheko Solairua. Sarriena Auzoa z/g 48940-LEIOA

Osasun Arloa: Biblioteka Eraikinaren Beheko Solairua. Sarriena auzoa z/g 48940-LEIOA

Arlo teknikoa: I. Ikasgelategia 3. solairua. Sarriena auzoa z/g 48940-LEIOA

Ingeniaritza GET.B Eraikina. Urkixo Zumarkalea z/g 48013-BILBAO

Planoak:

http://www.bizkaia.ehu.es/p209-content/eu/contenidos/centro/vrb_ubicaciones/eu_ubicacio/indice.html

Heltzeko informazioa:

http://www.bizkaia.ehu.es/p209-content/eu/contenidos/informacion/como_llegar/eu_llegar/llegar.html

ARABAKO CAMPUSA

Errektoreordetza. 2. Solairua. Komandante Izarduy, 2. 01006-VITORIA-GASTEIZ

Kokapena, planoak eta heltzeko informazioa:

http://www.araba.ehu.es/p208-content/eu/contenidos/centro/vra_ubicaciones/eu_situ/indice_ubicacion.html

GIPUZKOA KO CAMPUSA

Ignacio Maria Barriola Zentroa 1º solairua. Elhuyar Plaza, 1. 20018-DONOSTIA

Kokapena, planoak eta iristeko informazioa:

http://www.gipuzkoa.ehu.es/p210-content/eu/contenidos/centro/vcg_como_llegar/eu_llegar/llegar.html

